ISSN: 2173-9102 D.L./L.G.: BI-1677-03

# Actividades de la Academia

JAVIER OLEAGA ECHEVERRIA
Secretario de la AVD-ZEA

Dada la irregularidad con la que se han publicado los últimos números de este boletín, actualmente denominado "JADO", al que se le ha adoptado una nueva y mejor estructuración en todos los sentidos, como cabe comprobar de su visión y lectura, se ha producido una cierta discontinuidad en esta sección de "Noticias internas – Albisteak" y así las hay aparecidas hasta el 31 de diciembre de 2009 (que constan en el boletín nº 18 fechado en diciembre de 2009), si bien el número 19 lleva una referencia necrológica para los asociados fallecidos en el correr de dicho año.

Por tal motivo, en el presente número 20, que lleva fecha de diciembre de 2010 (aunque se distribuirá en abril de 2011), se relacionan las *Noticias internas – Albisteak* relativas a todo el año dos mil diez del modo siguiente:

**1.** La Junta Directiva celebró reuniones los días 16 de enero, 23 de febrero, 15 de marzo, 17 de mayo, 7 de julio, 15 de septiembre, 11 de noviembre y 27 de diciembre.-

**2.** El 23 de febrero se celebró la VII Asamblea General, y su desarrollo aparece en el Acta correspondiente.

**3.** Se dio forma al convenio con el Gobierno Vasco por medio de la consejería de Justicia, que se halla en la documentación de la AVD-ZEA.

**4.** Ya está desarrollada la página Web, de la Academia la que se irá ampliando en su contenido, en el que destaca la jurisprudencia sobre la Ley de Derecho Civil del País Vasco.

**5.** Como en años anteriores se han seguido manteniendo estrechas relaciones con Instituciones jurídicas cuales Colegio de Notarios, de Abogados, de Registradores, de Procuradores, Universidades, etc., habiéndose utilizado sus salones de actos, graciosamente, para diversos actos de esta Academia, habiéndose recibido subvenciones de varias de dichas entidades.

**6.** Se celebraron diversas JORNADAS CULTURALES, cuales las de los días:

30 de abril tuvo lugar en la Sociedad Bilbaína, la presentación del libro editado por esta AVD_ZEA, incluido en la colección "Abeurrea", sobre varios aspectos de la vida y pensamiento de don José-Miguel Azaola, y titulado *"El genio personalista"*, edición cuidada por D. Adrián Celaya, y con textos escritos por él mismo y los señores don Juan Aguirre, don Alfonso Saiz-Valdivielso y don Mitxel Unzueta.

6 de Mayo, en la Sala de conferencias de la Cámara de Comercio, Industria y Navegación, se pronunció una, expuesta por el miembro de esta AVD-ZEA, don Javier Dívar, en la que se presentó y repartió a los asistentes, el libro titulado *"El Consulado de Bilbao"* tema sobre el que versó la conferencia, y fue publicado e incluido en la citada colección "Abeurrea".

30 de septiembre, en el Palacio del Justicia del TSJPV con una conferencia del don Jody Guetta, de quien se presentó el interesante libro *"No excediendo sino moderando; garantías procesales en le normativa vizcaína del Antiguo Régimen"*. Libro también publicado integrado en el colección "Abeurrea" como nº 7.

15 de noviembre, en el Hotel Ercilla, dirigió e intervino, dentro de la Quinta jornada de la sección de Derecho Público, cuyo contenido era *"El futuro del sistema autonómico tras la sentencia del Tribunal Constitucional de 28 de junio de 2010 sobre el Estatuto de Cataluña",* don Javier Corcuera dirigiendo sendas conferencia, sobre la sentencia del recurso, relativo al Estatuto catalán, dictada por el Tribunal Constitucional. Las interesantes sendas conferencias fueron dictadas por los catedráticos de la Universidad de Barcelona don Xabier Arbós, y don Francesc de Carreras.

30 de noviembre, en el salón de actos del Colegio de abogados de Bilbao se desarrolló la Novena Jornada práctica obre el Derecho Civil del País Vasco, con el programa que se remitió en su día a los miembros de la AVD-ZEA.

13 de diciembre, en el salón del mismo Colegio de Abogados se expusieron, en diversas conferencias, como en años anteriores, *"Jornada sobre Derecho Cooperativismo y defensa de los consumidores".*

Igualmente se colaboró con la RSBAP el día 8 de mayo, en el salón de la Escuela de Música de Sestao, a un homenaje, muy sentido, celebrado en honor de nuestro presidente y gran gestor don Adrián Celaya

**7.** La apertura o iniciación del curso académico 2010 - 2011 de esta AVD-ZEA, tuvo lugar el 27 de octubre, en el salón de actos del Colegio Notarial del País Vasco, según el programa previamente repartido entre nosotros, teniendo por base la Lección pronunciada por nuestro compañero, don Javier Corcuera que llevó por título: "*Reflexión sobre el modelo autonómico español tras la STC 31/2010 sobre el Estatuto de Cataluña"*. Al cierre de dicho acto, el mencionado Colegio obsequió con un coctail.

**8.** Se han editado a lo largo del curso los libros ya mencionados El Consulado de Bilbao y sus ordenanzas de Comercio de 1737, de don Javier Divar, José Miguel de Azaola "El genio personalista" de don Adrián Celaya, don Juan Aguirre, don Alfonso Carlos Saiz de Valdivielso y don Mitxel Unzueta, y "No excediendo sino moderando; Garantías procesales en la normativa vizcaína del Antiguo Régimen", de Jody Guetta.

En este Boletín y siguiente aparecen publicadas las conferencias enunciadas en el apartado anterior número 7.

Respecto a los BOLETINES ORDINARIOS se han editado tres números, con la nueva presentación y formato y dotación de todos los requisitos técnicos. Se trata de los Boletines número 17, 18 y 19, ya denominados "JADO", que llevan fecha de septiembre de 2009, diciembre 2009 y mayo 2010.

**9.** Se han recibido diversas donaciones de libros jurídicos y ha adquirido auge el intercambio de publicaciones con otras entidades similares.

**10.** Hay que lamentar, encomendándoles en nuestras oraciones, a los socios fallecidos en el año, señores don Julián Arzanegui, don José-María Aycart, doña Idoia Irusta y don José María Finez.

FINALMENTE es oportuno recordar que se notifiquen, lo más rápidamente posible, los cambios de las señas para la recepción de la correspondencia, así como los de modificación de la cuenta bancaria, al objeto de que los envíos postales o "e-mail" sean lo más rápidos posibles y se eviten mal gastos.

También cabe agradecer de antemano y solicitar a los asociados, el envío de trabajos para su publicación en los Boletines, así como las notas o noticias que pueda ser interesante hacer constar en los "blogs" de la página WEB.

# Akademiaren jardunak

Javier Oleaga Echeverria
AVD-ZEAren idazkaria

Akademiaren "Noticias internas-Albisteak" atalean eten bat egon da. Akademiaren buletinaren berregituratze-lanak izan dira eten horren arrazoi; izatez, buletinaren azken zenbakiak irregulartasun osoz argitaratu ziren. Berregituratze-lan horretarik sortu da egun JADO izenarekin ezagutzen dugun aldizkaria, eta sortu ere, egitura berri-berriarekin, arlo guztietatik begiratuta, itxuran eta irakurtzean ikus daitekeeen moduan. Arestian esan bezala, "Noticias internas-Albisteak" atalak ez du izan jarraitutasunik azken urteotan, izan ere, 2009.urteko abenduaren 31ra arteko albisteak 18 zenbakidun alean, 2009ko abenduan argitaratu zen aldizkarian agertzen dira. 19 zenbakiak, aldiz, urte horretan hildako bazkideen hilberri-txostenak biltzen ditu.

Hori dela bide, 20 zenbakidun ale honek, 2010ko abenduko datarekin 2011ko uztailean banatuko denak, bi mila eta hamarreko urtean gertatukoaren albisteak biltzen ditu, modu honetara:

**1.** Zuzendaritza batzordeak bilerak egin zituen egun hauetan: urtarrilaren 16an, otsailaren 23an, martxoaren 15ean, maiatzaren 17an, uztailaren 7an, irailaren 15ean, azaroaren 11an eta abenduaren 27an.-

**2.** Otsailaren 23an egin zen VII. Batzar orokorra, horren nondik norakoak bilerari dagokion aktan jasotzen direla.

**3.** Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena moldatu zen, Justizia Sailaren bitartez, hitzarmena akademiaren agirien artean dagoela.

**4.** Akademiaren web orria gauzatu da, eta arian-arian edukia handitzen joango da. Euskal Herriko Zuzenbide Zibilari buruzko legearen Jurisprudentzia da azpimarratzekoa edukiari dagokionez.

**5.** Aurreko urteetan bezala, harreman estuak izan ditugu beste erakunde juridikoekin, besteak beste, Notario, Abokatu, Erregistratzaile, Prokuradore Elkargoekin, Unibertsitatearekin eta abar. Esan dezagun, orobat,Akademiak erakunde horien aretoak erabili izan dituela bere ekintzak egiteko eta horietako batzuengandik diru-laguntzak ere jaso dituela.

**6.** Hainbat kultura-jardunaldi egin dira, jarraian aipatzen diren legez:

Apirilaren 30ean, *Sociedad Bilbaina* delakoan, Akademiak, "Abeurrea" izeneko bildumaren barruan argitaratutako liburua aurkeztu zen, *El genio personalista* izenburupean. Liburuan José Miguel Azaola zenaren bizitza eta pentsaera aztertzen dira. Egilea Adrian Celaya jauna da, Celayaren testu propioez at ,Juan Aguirre,Alfonso Saiz-Valdivielso eta Mitxel Unzueta jaunek ere euren testuak argitaratu dituzte liburuan.

Maiatzaren 6an Akademiaren bazkide den Javier Dívar jaunak hitzaldi bat eman zuen Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberaren batzar aretoan. Eta hantxe aurkeztu eta bertaratutako guztiei banatu egin zitzaien *El Consulado de Bilbao* liburua, hark egina. Bilboko Kontsulatua izan zen, hain zuzen ere, mintzagai hitzaldian, eta Akademiaren "Abeurrea" bilduman sartu eta argitaratu da liburua.

Irailaren 30ean, Jody Guetta jaunak hitzaldi bat eman zuen EAEko Auzitegi Nagusiaren Justizia Jauregian, eta bertan aurkeztu zen *No excediendo sino moderendo; garantias*

*procesales en la normativa vizcaína del Antiguo Régimen* liburua, hark egina. Ohi denez, liburua "Abeurrea" bilduman argitaratu zen, 7 zenbakiarekin.

Azaroaren 15ean, Ercilla hotelean Javier Corcuera jaunak parte hartu zuen Zuzenbide publikoaren atalaren bosgarren jardunaldian. Hitzaldia Kataluniako estatutuari buruz izan zen, zehatz esateko Konstituzio Auzitegiak, 2010eko ekainaren 28an, estatutuaren inguruan emandako epaiaren ondoren zehaztutako autonomia-sistemari buruz mintzatu zen. Esan bezala, hitzaldia, Javier Corcuera jaunak zuzenduta, Kataluniako estatutuari buruz izan zen, Konstituzio Auzitegiak emandako epaiari buruz, errekurtsoa dela eta. Bartzelonako unibertsitateko Xabier Arbós eta Francesc de Carreras katedradunak parte hartu zuten hitzaldi banatan.

Azaroaren 30ean, Euskal Herriko Zuzenbide zibilari buruzko bederatzigarren jardunaldi praktikoa egin zen Bilboko Abokatuen Elkargoko areto nagusian. Jardunaldiaren egitaraua AVD-ZEAren kide guztiei bidali zitzaien, bere garaian.

Abenduaren 13an, Abokatuen Elkargoko areto berberean eta aurreko urteetan bezala, hainbat hitzaldi eman ziren *Jornada sobre Derecho Cooperativismo y defensa de los consumidores* lemapean.

Halaber, EAE, Euskalerriaren Adiskideen Elkartearekin ere harremanak izan dira. Izan ere, maiatzaren 8an, Adrian Celaya jaunari, gure lehendakaria eta kudeatzailea handi den Adrian Celayari, omenaldi hunkigarria egin zaion, Sestaoko Musika eskolan

**7**. AVD-ZEAren 2010-2011 ikasturtea irekitzeko ekitaldia urriaren 27an egin zen Euskal Herriko Notario Elkargoko areto nagusian. Egitaraua aurretik banatu zen gure artean. Hitzaldia gure kide denJavier Corcuera jaunak eman zuen *Reflexión sobre el modelo autonómico español tras la STC 31/2010 sobre el Estatuto de Cataluña* izenburupean. Ekitaldia amaitu ondoren aipatu elkargoak kopa bat eskaini zuen.

**8**. Kurtsoan zehar jada aipatu ditugun hainbat liburu argitaratu dira, besteak beste, Javier Divar jaunaren *El Consulado de Bilbao y sus ordenanzas de Comercio de 1737*; Adrian Celaya, Juan Aguirre, Alfonso Carlos Saiz de Valdivielso eta Mitxel Unzueta jaunek partekatu duten *José Miguel de Azaola "El genio personalista",* eta Jody Guettak idatzitako *No excediendo sino moderando; Garantias procesales en la normativa vizcaína del Antiguo Régimen.*

Buletin honetan eta hurrengoan daude argitaratuta aurreko atalean, 7 zenbakia duen horretan , gorago aipatutako hitzaldia.

OHIKO BULETINAK direla eta, hiru atera dira eta hiruek betetzen dituzte beharrezko baldintza teknikoak, itxura, formatu eta hornidurari dagokionez. Hiru buletinek 17, 18 eta 19 zenbakia daramate, "JADO" izendatzen dira eta 2009ko irailean, 2009ko abenduan eta 2010eko maiatzean atera ziren.

**9**. Hainbat liburu juridiko hartu du akademiak dohaintzan, izan ere, antzeko erakundeen artean argitalpenak trukatzeak garrantzi handia hartu du.

**10.** Gogoan izango ditugu urtean zehar hil diren bazkideak: Julian Arzanegui jauna, José María Aycart jauna, Idoia Irusta andrea eta José María Finez jauna.

AZKENIK, gogoratu nahi dizuet zein garrantzitsua den jakinaraztea ahalik eta arinen, edozein helbide-aldaketa, gutunak jasotzeko garaiz; edota bankuko kontu zenbakiaren aldaketak, horrek errazten baitu posta bidalketa edo posta elektronikoa, eta gainetik gastuak murriztu.

Aurrez aldetik eskerrak eman nahi dizkizuegu eta bide batez bazkideei eskatu bidali ditzaten euren lanak buletinetan argitaratzeko, eta baita interesgarriak izan daitekeen edozein aipamen edo albiste web orriko blogean bistaratzeko.